

Ilargia eta energia

UDABERRIA etortzearekin batera Ilargia protagonista bihurtu zen, egun batzuetan bederen, geure bizitzetan. Eguzki eklipsea ez da egunero gertatzen, eta eklipsearekin batera ilargia Lurretik oso hurbil baldin badago gertaera meteorologiko garrantzitsuak izaten dira. Ordu batzuetako iluntasunari itsas maren bizitasuna gehitzen zaionez, gertaera horiek geure bizimoduan eragiten dute.


Aurten ikuskizunari kezka bat erantsi zaio, agian Lurraren historian lehen aldiz: eguzki energiaren aldeko apustua egin duten herrialdeek eklipseak iraun bitartean euren energi produkzioa %5etik gora murriztu izana. Egia esan, itsasoko energiaren aldeko apustua egina balego berdinduko litza-teke eguzki energiaren galera.



Martxoaren 20ko eguzki eklipseak nabarmen eragin zion energi ekoizpenari zenbait tokitan.

Ilargiko helioa, lehengai preziatua

Eklipsea dela-eta protagonista izan den ilargiak badu Lurreko herrialde aberatsenek amesten duten lehengai: helioa. Bi protoi eta bi elektroi dituen elementu hori oso eskasa da gure planetan, %0,000137 baino ez, baina ez da gauza bera gertatzen ilargian. Helioa eguzkian eta izarretan sortzen da, eta eguzki-hai-zeak garraiatzen du, baina Lurreko atmosferak eta eremu magnetikoak ez diote lurreratzen uzten. Ilargian ez da halakorik gertatzen, eta hala, uste da une honetan 100.000 tonatik gora helio dagoela hango gainazalean.



Hainbat kalkuluren arabera, gizakion energia beharrak 10.000 urtez asetzeko adina helio dago ilargiaren gainazalean.

da, oso aproposa zientzialariek amesten duten fusio nuklearrean erabiltzeko. Hainbat kalkuluren arabera, ilargian dagoenarekin gizakion behar energetikoak ase litezke datozen 10.000 urteetan.

Orain hobeto ulertzen dugu ilargian egoitzak instalatzeko hainbat herrialdek duten interesa. Egia da handik gas preziatua hona ekartzea ez dela erraza izango, baina nonbaitetik hasi beharra dago. ■

Helioa erregai garbia eta ahalmen kalorifiko handikoa

Elhuyar aldizkaria hiruhilabetekaria izango da aurrerantzean

30 urtetik gora daramatza honezkero *Elhuyar* aldizkariak geure artean. Baina luzaroan hilero esku artean izan dugun hori urtean lau aldiz baino ez da argitaratuko hemendik aurrera, krisiaren eraginez. Doakiela lerro hauetatik besarkada zintzoa *Elhuyar*-eko lantaldea osatzen duten guztiei.

ttiki.com/338204
(Euskaraz)

Zuntz argitsuak jantzietan

Shanghaiko Unibertsitateko (Txina) ikertzaile talde batek kotoiaren eta zuntz sintetikoaren antzeko zuntz argidunak sortu ditu. Ikerlariek zelula elektrokimikoak eta zinkeko nanopartikulak erabili dituzte; horien bidez, laster erraz ekoitzi ahal izango dira arropa argitsuak.

ttiki.com/338205
(Frantsesez)

Erredurak lasterrago sendatzeko bidea

Erreduren ondoriozko orbanak sendatzeak luze jotzen du gehienetan, baina ikerlari mexikar batzuek orban horiek azkarrago sendatzeko bidea aurkitu dute. Orbanaren gainean azaleko zelulak dituen zuntz biodegradagarri bat kokatuz, erdira murrizten da sendatzeko behar den denbora.

ttiki.com/338206
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16